



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Hilma Af Klint, abstrakzioaren ama

Stockholm (Suedia) 1896. Hilma Af Klint (1862-1944) margolariak eta beste lau lagun artistek bostkote bat osatu zuten espiritismo saioak egiteko. Saio horietan oinarrituta, idazketa eta pintura automatikoan jarduten zuten taldekideek. "Goi maisuak" izeneko espirituek esaten omen zieten zer idatzi eta margotu eta, halako batean, saio haietan ikusten zuten mundu espirituala irudikatzeko enkargua egin omen zieten. Hilma Af Klint izan zen eskaerari erantzun zion bakarra.

1882 eta 1887 urteen artean, Klint Suediako Arteen Errege Akademiaren trebatu zen; artean formakuntza akademikoa jaso zuen Europako lehen emakume belaunaldiaren parte izan zen. Akademiak berak Stockholmeko Kungsträdgården auzune bohemioan estudio bat jarri zion bere talentua garatu zezan, eta erretratu nahiz paisaia naturalistak eginez lortu zuen bizibidea.

Baina ustez espirituek eskatu ziotena margotzen hasi zenean, lengoia figuratiboa albo batera utzi zuen Klintek. 1906an *Tenplurako koadroak* izeneko seriea abiatu zuen, eta 1915ean itxiko zuen 193 obrez osatutako sorta. 1916an *Parsifal* seriea egin zuen, eta hurrengo urtean, *Atomo* izeneko. Koadro horietan guztietan, muturreko berrikuntza ekarri zuen Klintek, begiez ikusten den errealitateari muzin eginez. Bestela esanda, 1906tik aurrera, lengoia abstraktua erabili zuen. 1908an,



Ezkerrean, Hilma Af Klint bere estudioan. Eskuinean, 'Primordial chaos, 16' lana, 1906 eta 1907 artean egindako koadro abstraktu aitzindaria.

Rudolf Steiner ezagutu zuen, Elkarte Teosofikoko kide nabarmena eta Antroposofiaren sortzailea. Bere lehen obra abstraktuak erakutsi zizkion Steinerri eta hark aholkatu zion lan horiek 50 urtetan ez erakusteko; ez zituzten ulertuko.

Bere obra figuratibo naturalistak erakutsi eta saldu zituen bizi zen artean, baina lan abstrakturik ez. 1944an hil baino lehen, koadro abstraktuak beste 20 urtez ez erakusteko eskatu zuen. Azkenean 42 urte joan ziren, 1986an



argitara eman zituzten arte.

Vasili Kandinskik 1911n idatzi zuen *Espiritualtasuna artean* lana, eta handik aurrera hasi ziren bera, Mondrian eta Malevitx margolan abstraktuak egiten. 1986tik dakigu Hilma Af Klint aurreratu zitzaizela, baina oraindik Kandinski, Mondrian eta Malevitx ditugu lengoia abstraktuaren sortzaitzat. Hiru aientzat tokia dago abstrakzioaren gurasoen podiumean, baina ez dago zirrikiturik benetako amarentzat. ●



Gomazko hartzek 100 urte

Gozoki gogorrak ekoizten eta produktu berriak egiteko esperimentatzen bi urte eman eta gero, 1922an, Hans Riegel gozogin alemaniarrak gozoki bigunak egitea lortu zuen. Gertrud emaztearekin batera prestatzen zituen, azukrea eta melaza egosita, eta, gero, bizikletaz banatzen zituzten. Oraindik ere merkatuan dauden hainbat gozoki Riegelenak baino zaharragoak dira; esaterako: Hershey's

gozokiak 1900ean iritsi ziren merkatu- eta Toblerone txokolatezko barrak, 1908an. Baina Riegelenak izan ziren lehen gominolak. Enpresari izena jartzeko bere izen abizenen lehen letrei, bere hiriaren (Bonn) hasiera erantsi zien: Haribo. Eta gozoki berriei hartz forma ematen bete betean asmatu zuen. Egun, 16 fabrika dauzka enpresak eta eguneko 100 milioi hartz ekoizten ditu. ●